

URTE
25
AÑOS

N.º 97. zkia
Primavera 2023
Udaberria

albaitaritza



Autoktonoak



PRID® DELTA

camino a
la fertilidad



reproAction™

Reproductive management in Action

PRID®DELTA 1.55 g SISTEMA DE LIBERACIÓN VAGINAL PARA BOVINO. Progesterona en dispositivo intravaginal. Composición por dispositivo: Progesterona 1,55 g. **INDICACIONES DE USO:** Para el control del ciclo estral en vacas y novillas incluyendo: Sincronización del celo en hembras cíclicas, para ser usado en combinación con una prostaglandina (PGF2), inducción y sincronización del celo en hembras no cíclicas, para ser usado en combinación con una prostaglandina y gonadotropina coriónica equina. **Contraindicaciones:** no utilizar en hembras gestantes. No utilizar en novillas sexualmente inmaduras o en hembras con tracto genital anómalo, por ejemplo freemartins. No utilizar antes de que hayan pasado 35 días desde la fecha del parto anterior. No utilizar en animales que presenten infección o enfermedad no infecciosa del tracto genital. **REACCIONES ADVERSAS (FRECUENCIA Y GRAVEDAD):** Durante los siete días de tratamiento, el dispositivo puede inducir una reacción local suave (es decir inflamación de la pared vaginal) resultando en una secreción vulvar turbia o viscosa en el momento de la retirada del dispositivo. Esta reacción local desaparece rápidamente sin ningún tratamiento entre la retirada y la inseminación y no afecta a la fertilidad en la inseminación ni a las tasas de gestación. **USO DURANTE LA GESTACIÓN Y LA LACTANCIA:** Puede utilizarse durante la lactación. Estudios de laboratorio en ratas y conejos, tras administración de dosis elevadas y repetidas de progesterona, por vía intramuscular o subcutánea, han evidenciado efectos tóxicos para el feto. El uso del medicamento está contraindicado en hembras gestantes. **POSOLOGÍA Y VÍA DE ADMINISTRACIÓN:** Uso vaginal. 1,55 g de progesterona durante 7 días. Con la ayuda de un aplicador, insertar un dispositivo en la vagina del animal. El dispositivo intravaginal deberá permanecer colocado durante 7 días. En hembras cíclicas, el dispositivo debe ser utilizado en combinación con una prostaglandina, inyectada 24 horas antes de extraer el dispositivo. En hembras no cíclicas, debe administrarse una inyección de PGF2 24 horas antes de extraer el dispositivo y una inyección de eCG en el momento de la extracción. Los animales deben ser inseminados 56 horas después de la retirada del dispositivo. El dispositivo está destinado a un único uso. Tiempo de espera: Carne: 0 días. Leche: 0 días. Presentación: Caja de cartón conteniendo 10 sobres con 1 dispositivo. Caja de cartón conteniendo 100 sobres con 1 dispositivo. Medicamento sujeto a prescripción veterinaria. Reg. N°: 2194 ESP.

Ceva Salud Animal S.A. - www.reproduction.com/es - ceva.salud-animal@ceva.com - Carabela La Niña, 12, 3ª Planta - 08017 Barcelona - Tel.: 932 92 00 66



Patxi Aranguren Garde, Marta Gómez Segura eta Maite Lasarte Elizalderi elkarrizketa

Arraza autoktonoak:
lurrari itsatsita
4. or.



Arraza autoktono- etako abeltzainei egindako elkarrizke- tak

Pirinioetako
behiekin, ardi
Latzarekin eta
nafar ardi
arrazarekin lanean

18. or.

Artikulu teknikoa

Hozteko sistemak gai al dira
beroak ugalketan duen
eragin negatiboa
saihesteko?

30. or.



Nº 97. Zkia
Primavera 2023 Udaberria

albaitaritz

Argitaratzailea: ALBAITARITZA, S.A. **Zuzendaria:** Gaizka Aranguren **Aldizkariaren edukietarako kontakua:** revista@albaitaritz.com **Erredakzioa eta argazkilaritza:** Labrit Multimedia S.L., Albaitaritz S.A., Albaikide S.A., Iñako Redín eta Oroitz Zabala. **Erredakzio kontseilua:** Gaizka Aranguren, Javier Zabala, Julen Huarte, Joxe Etxezurieta, Juan Manuel Lose, Oroitz Zabala. **Maketazioa:** LabritMultimedia **Publizitatea:** AlbaitaritzS.A. · revista@albaitaritz.com · (34) 948 50 03 43 **Inprimaketa:** 6.050 ale **Banaketa:** Posta bidez doan Albaitaritz S.A. eta Albaikide S.A.ko bezeroei; doan Albaitaritzako establezimendu eta sare komertzialetan. Albaitaritz S.A., enpresa editorea; Labrit Multimedia S.L., enpresa ekoizlea; eta aldizkariaren erredakzio-kontseilua ez dira nahitazez identifikatzen bertan argitaratzen diren artikuluen egileek adierazitako iritziekin, eta egileak berak dira horien arduradunak ondorio guztietarako. DL NA 0070-1999

ELKARRIZKETA

“



[.] Patxi Aranguren Garde,
Marta Gómez Segura
etaMaite Lasarte

Elkarrizketa

Patxi Aranguren Garde, Marta Gómez Segura eta Maite Lasarte Elizalde.

Marta Gómez Segura. [MARTA (ARANA)]

ARANA, Nafarroako Arrazaren Elkarteko gerentea (Haragitarako ardiak).

Logroñokoa, Errioxa. 47 urte.

Albaitaria. ARANAn hasi: 2018. “Lehen zegoen idazkari exekutiboaren errelebo-kontratu batekin sartu nintzen, eta bost urte daramatzat”.

Patxi Aranguren Garde. [PATXI (ASPINA)]

ASPINA, Nafarroako Pirinioetako Elkarteko gerentea (haragitarako behiak).

Getzokoa / Salinas de Pamplona (Galar), Nafarroa. 58 urte.

Albaitaria. ASPINAn hasi: 1990.

“Oso garai nahasiak eta istorio asko egokitu zaizkigu. Oraingoz, jarraitzen dugu, ez dela gutxi”.

Maite Lasarte Elizalde. [MAITE (ASLANA)].

Nafarroako Latxa Elkarteko gerentea, ASLANA (esnetarako ardiak).

Etzarrikoa (Larraun), Nafarroa. 46 urte.

Albaitaria

“Abeltzainen eta gaztagileen alaba naiz.

Arraza autoktonoak: lurrari itsatsita

Nafarroa Garaiko kasua aztertuko dugu

Duela hilabete batzuk zuen deia jaso genuen. Bertako arrazei buruz hitz egitea nahi zenuten.

Zergatik?

MARTA (ARANA): Nik uste dut ez dela oso ondo ezagutzen bertako arrazen elkarteek egiten dugun lana, elkarte baten barruan egoiteak duen garrantzia. Abeltzainei ematen dizkiegun datuak oso erabilgarriak dira ustiatzea kudeatzeko; batez ere, hobekuntza genetiko estentsiboan egiteko. Ingurunera egokituta dauden arrazak dira, ingurumen- eta gizarte-funtzioa betetzen dute eta jende askok ez ditu ezagutzen. Albaitaritzaren Estatu osoan eta, batez ere, Nafarroan banatzen den aldzakaria da, eta, beraz, ezagutaraztea nahi genuen.

Baina zergatik jo nahi duzue abeltzainengana oro har?

MAITE (ASLANA): Uste dut arraza autoktonoa duenak, batzuetan, ez duela behar adina baloratzen. Ondare-balioaz gain, arraza da abeltzainak lurraldearekin duen loturarik handiena. Haien presentzia da onena lurralde horretarako. Elkarrizketa askotan arrazarekiko ikuspegia falta da.

PATXI (ASPINA): Gainera, askotan beste arrazen propaganda egiten da. Interes desberdinei lotuta ko aholkulari- eta komertzial kopuru handia dago, ukuiluetatik iga rotzean, “arraza hau hartuz gero gehiago ordainduko dizut” esanaz “aholkulari genetiko” bihurtzen direnak. Ez da harrizkoa abeltzainak nahastuta egotea.

Epe laburrak sortzen dituen itxaropen faltsuengatik?

PATXI (ASPINA): Horixe. Hibrido batek lehen belaunaldian bertako arrazek baino hobe ekoizten du, eta jendea erotu egiten da esanez: “Agian beste arraza bat jarriko banu, ez dakit zer izango nuke...”. Nekazal Politika Bateratu (NPB) berriarekin, hemen egiten ari garena aldarrikatzeko unea zen. Azkenean, ondare genetiko da. Arraza mundu guztiarena da.

MARTA (ARANA): Eta hobetu egiten da, lehiakorrak izan daitezten, kontuan hartuta lurraldeari egokিতuta egon behar dutela eta beren ezau-garriari eutsi behar dietela.

PATXI (ASPINA): : Arraza hauen hobekuntza genetiko hemendik bakarrik egin daiteke. Arrazak desberdin atera dira, mendeetan zehar lurraldeetara egokitu dire-lako.

«*Kanpoko arrazen etengabeko erasoak jasaten ari gara*»

Ba al duzue arraza horiek beste lurralde batzuetara proiektatzeko asmorik?

MARTA (ARANA): Hainbat autonomia erkidegok partekatu dituzten arrazak dira; Nafarroa ardi Arraza Errioxan dago, EAEn dago, Sorian, Burgosen, baina ez dago Kordoban.

PATXI (ASPINA): Helburua da beren lurraldean finkatzea. Kanpoko arrazen etengabeko erasoak jasaten ari gara. EAEn, adibidez, limousin, piriniar eta blondaren arteko borroka dago.

Zer joera du pirenaikak, Patxi?

PATXI (ASPINA): Nafarroan, haragitarako behi gehienak Pirinioetakoak dira, baina, hedatze naturalagatik, Errioxara, Burgosera, Sorriara... ari gara hedatzen. Kantabriar 4.000 Pirenaiko daude. Duela hamar urte ez zegoen bat ere.

Zergatik? Kantabriak bere arraza autoktonoa du...

PATXI (ASPINA): Kantabriar, bertakoa tudanca zen. Haragi-forma gutxien dituen arraza da.

Pirenaika inolako gurutzatzerik gabe hazi daiteke, behar adina haragi ekoizteko. Hedapen naturala dela uste dugu. Oraintxe bertan Iparraldean [Pirinio Atlantikoetako Departamenduko euskal lurraldeak] Pirenaikako hamahiru abeltzainekin elkarteak sortu dugu.

MAITE (ASLANA): Kasu horretan, jatorrirra itzultzea da. Akitaniako blondak Pirenaikoa du bere geneetan.

PATXI (ASPINA): Bai, hala da.

Zer gertatzen da Latxa ardiaren kasuan, Maite?

MAITE (ASLANA): Oso noiz-behinkako kasuak izan ditugu. Txilera edo Argentinara hazi

apur bat bidali dugu, edo eskoziar batek deitu dugu, baina ez da batere ohikoa. Ez da mendebalderantz hedatu. Ez Kantabriara, ez Asturiasera, baina Europako Mendietan Latxaren bat badago, beti egon baita.

Zaila da Latxa Euskal Herritik kanpo zabaltzea?

MAITE (ASLANA): Latxa ingurune honetara oso egokitua dago. Daukan artilearekin ez dut beste leku askotan ikusten.

«*Beste haragi-mota batzuetatik bereizteko sendotasun bat izan beharko luke*».

HUVEPHARMA

Aportamos rentabilidad a tu negocio

Albiotic®

**Única Sinergia
Amplio Espectro
No Irritante
Solución Acuosa**

ALBIOTIC Solución intramamaria para vacas lecheras – **COMPOSICIÓN:** Una jeringa de 10ml contiene lincomicina (como lincomicina clorhidrato) 330 mg y Neomicina (como neomicina sulfato) 100 mg – **INDICACIONES:** Para el tratamiento de la mastitis en vacas lecheras. El producto es efectivo frente a especies de *Staphylococcus* (cepas productoras y no-productoras de penicilinas) incluyendo *Staphylococcus aureus*, especies de estreptococos incluyendo *Streptococcus agalactiae*, *Streptococcus dysgalactiae* y *Streptococcus uberis*, y bacterias coliformes incluyendo *Escherichia coli*. – **CONTRAINDICACIONES:** Ninguna – **ADVERTENCIAS ESPECIALES PARA CADA ESPECIE DE DESTINO:** Ninguna – **Precauciones especiales de uso:** Precauciones especiales para su uso en animales. Ninguna. Precauciones específicas que debe tomar la persona que administre el medicamento veterinario a los animales. Evitar el contacto con la solución. Lavarse las manos después del uso. En caso de contacto con la piel y/o los ojos, lavar inmediatamente con agua abundante. – **REACCIONES ADVERSAS:** Ninguna conocida. – **TIEMPO DE ESPERA:** Leche: 84 horas. Carne: 3 días – N° Registro: 1281 ESP.

Estatuan, zein da arraza autoktonoen egoera?

PATXI (ASPINA): Frantziako haragi-arrazen aldeko apustua egin da gurutzatze industrialean, eta horrek autoktonoak haien lurralde zehatzetara eraman ditu. Abantaila izan daiteke bereizgarri gisa, identitate gisa. Indarra izan beharko luke beste haragi-mota batzuetatik bereizteko.

MARTA (ARANA): Bertako arrazen presentziak eragina du lurralde bakoitzeko pertsonen kontsumo-ohituretan. Nafarroan esnekoak eta bildots helduago (ternasco) pixka bat jaten dira.

Nafarroa Arraza haragi-mota hori hazteko prestatuta dago. 25 kiloko arkumeak gizentzen saiatuz gero, ez du ondo koipeztatuko. Ez dator bat kontsumo mota horrekin.

Kontsumo-ohiturak errotutako ekoizpen-tradizioen adierazle dira.

MARTA (ARANA): Kulturarekin eta dauden lurraldearekin lotuta dagoelako.

MAITE (ASLANA): Gure kasuan oso argi dago. Latxa lehiakorra da, jatorri-deitura duten gaztak dituelako.

Esparru horretatik kanpo ere ez da lehiakorra prezioari dagokionez, eta ez du funtsezkoa den produktuaren bereizketarik.

Jatorri Deitura Babestuaren (JDB) edo Adierazpen Geografiko Babestuen (AGB) Kontseilu Erregulatzailerik zuzenaren testuinguruan irautearekin?

MAITE (ASLANA): Dena. Latxa esnearen %90 baino gehiago Idiazabal eta Erronkari gazta bihurtzen da. Hortik kanpo, zuzeneko salmentarako ekoizpenetan izan ezik, ezin gara lehiatu.



PIRENAIKO ARRAZAREN BILAKAERA (BEHIAK)

Patxi Aranguren (ASPINAko gerentea)

Pirenaiko behi-buruen kopuruaren bilakaera Nafarroan:

1965	2.000
2022	16.350
ASPINAko elkarte kideak	14.000
Pirenaikoa munduan	38.000

Pirenaikoak 1960-70 urteetan hasi ziren berreskuratzen. Batez ere Aezkoako Haranean (Nafarroako Pirinioak) eta Baztanen gelditu zen gordeleku batetik desagertzea saihestu zen. Orduan 2.000 buru inguru geratzen ziren.

Garai hartako albaitari batek, Teófilo Etxeberriak, arrazari buruzko tesia idatzi eta sustatzen hasi zen. Ministerioaren laguntza batzuk izan ziren, zezenak eramaten ziren zentrorra eta berreskuratzen joan zen, 1990ean 12.000 mila behi zeuden Nafarroan 1.200 ustiategitan.

Azken hamabi urteetan, zentsua 14.000 burura igo da, baina abeltegiak erdira jaitsi dira, 1.200 burutik 500era.

ASPINARI lotutako batez besteko ustiategiaren profila 50-60 behikoa da. Pirenaikoa duten bazkideku gabeak txikiagoak dira. Gurea 50 eta 60 urte bitarteko abeltzaina da eta lur-propietate batzuk ditu, larreetarako erabiltzen dituztenak herriko lurren erabilera osatzeko.

Komunaleko portuak profitatzen dituzten mendialdea dira: Artzibar, Aezkoa, Zaraitzu, Baztan, Estellerria Urbasa eta Andia mendilerroekin, inguruak... funtsean hor.

Oro har, familia-ustiategiak dira. Familia barruko errelebo asko. Oso zaila da, ia ezinezkoa, norbait hutsetik hastea.

Pirenaikoan bi korrante oso argi daude: adarraren defendatzaileak, adarrak gabeko behiak Pirenaikoak iruditzen ez zaizkienak eta, kudeaketagatik adarrak moztu edo erretzen dituztenak eta nabean askatuta dauzkatenak. Adarrak maneirako kentzen dira normalean, ekoizteko, eta estetika alde batera uzten da pixka bat.

ASPINAK 500 bazkide ditu gaur egun.





Leche maternizada para terneras

Celtilait Up!
La proteína ideal, económico y eficaz

Celtilait PRIMVO
Seguridad digestiva y dilución fácil



Puede ser distribuido en todo tipo de máquina automática, tanto en distribución racionada como en libre servicio. Planes de alimentación disponibles a la demanda.

 **Celtilait**

380 Lesgall an Taro - Ploudaniel - FRANCE - Tél. (33) 02 98 36 21 80 - celtilait@celtilait.com - www.celtilait.com

NAFAR ARRAZAREN BILAKAERA (HARAGITARAKO ARDIAK)

Marta Gómez (ARANAKo gerentea)

Nafar Arrazako ardi puruak, liburu genealogikoan erregistratuak:

2009..... 119.532

2021..... 66.700



Abeltzain ertainak 700 ardi inguru ditu. Artaldeak oso desberdinak dira, Pirinioetatik Bardearaino [Nafarroako Errege Bardea, neguan artzaintzarako gun eardiesertikoa] joaten direlako; maneia oso desberdina da batetik bestera.

Oraindik ere artaldeekin ateratzen dira artzaintzara, uzta bildu duten lurretako baliabideak, uztondoak, aprobetxatzeko. Iparraldean belardi gehiago dute, baina neguan elurraengatik eta klimarengatik ukuilutan sartu behar dituzte.

Trashumantzia Nafar Arrazari estu lotutako ezaugarria zen. Oro har, oinez egitetik kamioietan egitera pasatu zen, baina elkartean, orain, ez dago hori egiten duen inor. Zaila da errentagarri bihurtzea. Abeltzainen batek jarraitzen du, baina egunero joaten da Pirinioetatik hegoaldera autoz ardiak ikustera. Ardiak badoaz, baina artzaina ez doa haiekin lehen bezala.

Abeltzainen bat dago artzain kontratatuekin, baina erreleborik gabeko erretiroak gertatzen ari dira batez ere. Inork ez du jarraitzen. Artaldean eta ardien kopurua murrizten ari da.

Oso abeltzaintza estentsiboa da, oso gogorra, egunero makilarekin ateratzekoa, eta ez du birentzat ematen. Dena pertsona bakar baten lepotik doa, abeltzaina, bere ardi artzaina; baina arraza horretara egokituta dago, egunero ibiltzen da mendian dagoena aprobetxatzeko.

Oso zaila da jendeak bizimodu horrekin bat egin nahi izatea. Horretan bakarrik aritzen dira, animalia kopuru oso txikia ez badute eta beste lan batekin bateratu ezean.

Ureztatzearekin asko handitu da Nafarroako erdialdean atera dezaketen janaria. Orain janari gehiago dago abeltzainak baino. Janari ugari dago, eta ez dago jateko animaliarik, ez baitago animaliak eramaten dituen artzainik.

ARANAK, gaur egun, 96 bazkide ditu.

LATXA ARRAZAREN BILAKAERA (ESNETARAKO ARDIA)

Maite Lasarte (ASLANAko gerentea)

Urtebetetik gorako ardi Latxak Nafarroan:

2001..... 187.119

2019..... 125.590

Liburu Genealogikoan inskribatutako urtebete baino gehiagoko ardi Latxak Nafarroan:

2010..... 30.643

2021..... 38.138



2001 eta 2019 bitartean, urtebetetik gorako Latxa ardi-buru kopurua jaitsi egin da Nafarroan, 187.11etik 125.590era. Hala ere, Liburu Genealogikoan inskribatutako Latxa ardiak 30.643 ziren 2010ean, eta 38.138 2021ean.

Oso sektore heterogeneoa da. Erroldatutako ustia-tegiekin, artaldearen batez besteko tamaina 50 ardikoa da. Benetakoa ez den zerbait. Izan ere, jende askok ardi gutxi batzuk ditu etxeko edo mendiko bordako lorezainen funtzioa bete dezaten, baina ez dituzte jezten. 230 artalde jezten dira bakarrik.

230 artalde eta beheranzko joera. Ganadutegi horietako 85 baino ez daude ASLANAn. 38.000 ardi. 400 buru baino gehiago artalde bakoitzeko. Haiei egiten zaie arrazaren jarraipena liburu genealogikoen bidez. Duela 20 urte 55 abeltzain zeuden ASLANAn. Gaur 85 gara. Progresio hori oso garrantzitsua da. ASLANAn egoteko erditzeen erregistro bat eraman behar duzu. Guk esne-kontrola egiten dugu. Latxa kontserbatzeko eta hobetzeko lanean ari direnak ASLANAn daudenak dira.

Batez besteko ekoizpena 150 litro ingurukoa da ardi bakoitzeko. Kontuan izan behar dugu Latxak, duela 30 urte, 75 litroko ekoizpena zuela batez beste.

90eko hamarkadan, ardiak kanpotik ekartzea edo gurutzatzea zen joera, F1, urte batetik bestera esnea ekoizten zutelako, baina abeltzainek oso argi izan zuten: arraza horiek ez zeuden egokituta. Latxarekin lanean jarraitu nahi zuten. Mendialdean ez dago beste arrazarik ekoizpen intentsiboan ez bada. ASLANAko abeltzain gehien Nafarroako isurialde atlantikoan daude, nahiz eta orain Erronkari bailararantz hedapen bitxi samarra dagoen, eta bitxia da, Erronkari ez delako Latxa arrazako bailara izan.

ASLANAk, gaur egun, 85 bazkide ditu.

Ziurtagiriak

Erraza da zehaztea animalia bat arraza horietako baten parte den genetikoki?

MAITE (ASLANA): Pirenaikoen dena dago liburu genealogikoen kontrolpean, baina gure kasuan badirudi mundu guztia gai dela Latxa zer den eta zer ez esateko.

Jatorrizko deituren kontseilu arautzaileek, adibidez, onartzen al dute abeltzain bakoitzak animalien arrazari buruz esaten diona?

MAITE (ASLANA): Egia esan bai. Formalki, INTIAren [Nekazaritzako Elikagai Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua] Jatorrizko Deituraren kudeatzailea da, eta zehazten du Latxak edo nafar arrazakoak zeintzu diren.

Eta zertan oinarritzen du erabaki hori?

MARTA (ARANA): Animalien itxuran.

Baina ez dago liburu genealogikorik eta hori frogatzen duen elkarterik?

MAITE (ASLANA): Gu.

MARTA (ARANA): Baina ez da eskatzen jatorrizko deituran egoteko.

Ikuskatzaileak ez du kontuan hartzen liburu genealogikoa arraza ziurtatzeko?

MARTA (ARANA): Ez. Nafarroako Arkumearen AGBren barruan, adibidez, ez da beharrezkoa AGB gisa saltzen diren arkumeak Nafarroako Arrazaren liburu genealogikoan inskribatzea.

MAITE (ASLANA): Ikuskatzaileak badu bere prestakuntza, ez dut eztabaidatzen, eta egia da Nafarroan oso gurutzaketa gutxi dagoela; beraz, arraza estandarra dela eta, arraza den ala ez erabaki dezakezu, baina ofizialki esan dezakegun bakarrak gu gara.

Orduan?

MARTA (ARANA): JDB eta AGBen baldintza-agirian jartzen du Nafar Arrazakoak edo Latxa arrazakoak izan behar dutela, baina ez nork ziurtatu behar duen. Ezta arraza-eskakizunak ere.

MAITE (ASLANA): Gaur egun, administrazioan, Nafarroan 140.000 Latxa ardi daudela uste da, baina datua abeltzainak egiten duen deklarazio hutsaren emaitza da.

MAITE (ASLANA): Nafar Arrazan berdin.

Eta Pirenaikoen?

PATXI (ASPINA): Gure kasuan, betidanik, Pirenaikotzat jo izan da liburuan inskribatuta zegoena. Gainerakoa mestizoa zen ondorio guztietarako, NPBak DAlekin iritsi arte.

Zer da DAI?

PATXI (ASPINA): Abeltzainek behiak identifikatzeko betetzen duten dokumentua da. Abeltzainak, askotan, arraza jakin bat duela jartzen du, antza duelako, nahiz eta elkarteren batek ziurtatu ez. Baina, tira, horrek ez du NPBk baino balio gehiago, printzipioz. Beste edozertarako, Pirenaikoa izan da gure liburuan zegoena.

« Orain, behi Pirenaikoen %90 laguntzarik gabe erditzen da »

Errentagarritasuna

Zer bilakaera lortu da bertako arrazaren produktibitateari dagokionez?

PATXI (ASPINA): Pirenaikoetan ez da esnekoetan bezain nabarmena hobekuntza hori. Abeltzainari errentagarritasuna ematen dioten alderdietan jarri dugu arreta. Osaera dezente hobetu da; jada ez da ipurdi gutxiko animaliarik ateratzen.

Eta asko hobetu dugu erditze-erraztasunean, hasieran arazo bat izan baitzen, Pirenaikoak erditzeko zaila zenaren fama zuelako. Orain behi Pirenaikoen %90 laguntzarik gabe erditzen da.

Horrek ugalkortasun-indizeak handitu zituen.

PATXI (ASPINA): 30 urtetan 15 puntu. Erditzeak batz bestea %55 izatetik 70 izatera igaro gara. Hori, azkenean, haragi kiloak dira.

Nafarroako kontsumitzaileen gustuak bat datoz Pirenaika kanala motarekin?

PATXI (ASPINA): Hemen ez da kanal handirik nahi. Pirenaikak 320-330 kilo ematen dituzte. Merkatu horretara oso egokituta dago.

Eta bizitzeko ematen du?

PATXI (ASPINA): NPBren laguntzarik gabe ez, noski. INTIAk urtero aurkezten dituen kudeaketa-datuak penagarriak dira haragitarako behietan eta haragitarako ardietan. Urte askoan ez produzitzeko laguntza eman da. Laguntzaren mende dagoen sektorea da.

Hori bai, genetikoki, elkarreak eta abeltzainek ondo lan egin dute. Ingurunera eta baliabide naturalerara ondo egokitutako arraza bat finkatu da, eta oso produktu salgarria eta ona sortzen du.



Nafar Arrazan, nola dago errentagarritasuna, Marta?

MARTA (ARANA): INTIAtik ateratzen diren datuen arabera, okeletarako ardietan, NPBrri esker, urtean 24.000 euroko oinarritzko errenta lortzen da. Hobekuntza genetiko oso motela izan da. Arkume bakoitzeko haragi kiloetan eragin ordez, ardietan ugalkortasuna sustatu dugu.

Ugaltzen ari dira erditze bikiak?

MARTA (ARANA): Ugalkortasunaren heredagarritasuna oso motela da, baina 1,22tik 1,35era igaro gara erditze bakoitzeko. Kontua da, orain, merkatua dagoen bezala ganaduzale batzuek ia arkume bat nahiago dutela ardi bakoitzeko, eta arazo gehigarriak saihestu. Oso triste da entzutea: "ez dut nahi bikoitza ordaintzea". Une batean, ekoizpenak berdin dio.

Latxaren kasuan, Maite?

MAITE (ASLANA): Esan dizudan bezala, hobekuntza genetikoaren

«30 urtean
ekoizpena
hirukoiztu
duten
Latxako
ukuiluak
daude»

bilakaerarekin ekoizpena bikoiztea lortu da 30 urtean, nahiz eta ukuilu batzuek hirukoiztu baino gehiago egin duten, ardi bakoitzeko 200/250 litro sortuz. Hala ere, esne kantitatean asko zentratzen bazara, gantz eta proteina indizeak murrizten dituzu.

Nola bideratzen dituzue ekoizpena handitzeak eragindako desorekak?

MAITE (ASLANA): Esne kalitatean eta errape morfologian lan eginez: ez da gauza bera ardi batek bi

litroekin edo litro erdirekin behar duen errape mota.

Esnearen kalitatea ekoizpena baino heredagarritasun txikiagoa duen karaktere bat da. Asko kostatzen ari zaigu. Hala ere, errapearen morfologia oso erraza da hobetzeko, heredagarritasun altuarekin. Orain biziraupenari buruzko gaiak lantzen hasi gara, animaliak zenbat eta gehiago produzitu, orduan eta higadura handiagoa baitu.

Zuen kasuan, gainera, gaztandegien gaia dago.

MAITE (ASLANA): Bi mundu oso desberdin dira: esnea saltzen duena eta gazta saltzen duena. Hori argi dago. Normalean, pertsona bat baino gehiagoko elkarreak izaten dira gazta egiten dutenak. Esnearen ekoizpen eksklusiboari abeltzain bakarrek ukuiluak daude lotuta. Azken hauek oso errentagarritasun mugatua dute. Gainera, NPB oso txikia dute, artalde historikoa txikiagoa zelako.



Zorionak Albaitaritza!

Zure bazkiderik onena errapeak zaintzeko eta instalazioak garbitzeko
Tu mejor socio en el cuidado de ubres y en la higiene de instalaciones

OXIA
Chemical specialties
www.oxa.cat

Arraza autoktonoekin lan egiten duen abeltzainak gehiago kobratzen du horregatik?

PATXI (ASPINA): Hori mito bat da. Iraunkortasunerako laguntza bat zegoen, Azienda Larri Unitate (ALU) bakoitzeko sei euro gehiago ematen zituen autoktonoentzat, betiere beste baldintza batzuk betetzen baziren; beraz, autoktono guztiek ez zuten kobratzen.

MARTA (ARANA): Jendea ez dago hemengo arrazarekin laguntza ekonomikoengatik.

Arrazarekiko maitasuna

Orduan, zergatik aukeratzen dute abeltzainek arraza autoktonoa?

PATXI (ASPINA): Gustatzen zaielako, hemengoa delako, sentimendu hori dutelako, tradizioa delako eta norberarenarekiko maitasunagatik. Eta beste edozein arraza bezain errentagarria delako. Zure dimentsioa zure eremura, zure erabilerara eta zure egoerara egokitzea da kontua.

MAITE (ASLANA): Bai. Latxekin berdina da.

«*Elkartean daudenak abeltzain profesionalizatua goak dira*»

MARTA (ARANA): Nafar Arrazan bezala. Beti izan duten arraza historikoa delako, eta saltzen duten produktua esne bildotsa delako, hemen kontsumitzen dena. Elkartean daudenak, erditzeen datuak biltzeko ahalegina eta lana egiten dutenak, eta liburu genealogikoaren barruan daudenak, abeltzain profesionalizatua goak dira. Aintzat hartzen dituzte itzultzen dizkiegun datuak, erditze bikoitzei buruzkoak, ardi ez-emankorrei buruzkoak, berriro erroldatzeari buruzkoak, arkumei krotala jartzeari buruzkoak eta hobekuntza genetikoko buruzkoak.

BILDOTSEN ITSASONTZIA

“Itsasontziak” haragitarako ardi-merkatua baldintzatzen du gaur egun. Azal dezagun.

MARTA (ARANA): Ontzia esportazioa da. Nafar Arrazak ez ditu ondo gizentzen 35-40 kilokoak eta hori da arabiar merkatuak eskatzen duena; beraz, abeltzain batzuk Berrinchon arrak ekartzen ari dira, jatorri frantseseakoak, esportazioarako arkume handiagoak egiteko, nahiz eta hori tokiko merkatutik ateratzen dituen.

MAITE (ASLANA): Nik uste dut arraza autoktonoekin lan egiten dutela benetako abeltzainak direlako. Lan egiten duten arrazarekin gustura daude. Latxaren kasuan, gainera, zaila da beste edozein arraza lurraldera egokitzea.

MARTA (ARANA): Bai, beno, eta kontuan izan bertako arrazekin duintasunez bizi daitekeela eta seme-alabak unibertsitatera bidali.

Baina administrazioak ez du bertako aziendaren aldeko plussik.

MAITE (ASLANA): Ez, ez, ezertarako. Ez dute ia bereizketarik egiten.

MARTA (ARANA): Saiatzen ari gara, baina ez.

PATXI (ASPINA): Beti borrokatzen dugu... uzten diguten arte.

MARTA (ARANA): Eta beti esaten digute baietz, baina, gaur egun, ezetz da.

Paisaia egiten

Gero, abeltzaintza autoktonoaren paisaia-onuren gaia dago.

MAITE (ASLANA): Berezko ezaugarria da: estentsiboa da. Esnea eta haragia ekoiztearekin batera larre batzuk jaten dituzu, mendiak politagotako daude, sute arrisku gutxiago dago.

MAITE (ASLANA): Gertatzen dena da fokua hor jartzen ari dela eta ahazten ari garela animalia hori hor dagoela esnea eta haragia ematen dituelako.

MARTA (ARANA): Energia transformatzeko modu bat da.

MAITE (ASLANA): Inork jango ez duen belar hori janez gero gazta eta esnea ekoizten badituzu, bada... primeran, baina ez dezagun alde batera utzi: gazta eta esnea ekoizti behar dira, bestela zertarako?

PATXI (ASPINA): Batzuek esango lukete modu merkeena dela osasuna menditik hirira eramateko...

MARTA (ARANA): ...gasolioaren beharrik gabe.

PATXI (ASPINA): Askotan, paisaia sortzea publizitate gisa erabiltzen da: jasangarritasuna, hurbileko merkatua... Baina askotan iruzurrak egiten dira eta beste gauza batzuk saltzen dira publizitate horrekin. Edo denda batera joan eta Alacanteko “hurbileko” produktu bat aurkitu duzu eta esan duzu: “hostia! hurbiltasuna, hurbiltasuna...” Hego Afrikarekin alderatuz gero bai, baina...

Uste duzue ez dela publizitatearen iruzurra zigortzen?

MAITE (ASLANA): Latxa ardiek egindako paisaiaren argazkia beste arraza bateko gazta batean ikusten duzunean... Behin, Iruñeko gazta-denda batean, gazta saltzailerari esan nion: “Aizu, hori ez da Latxarena”; eta esan zidan: “Nola ezetz? Ni hor egon naiz eta erakutsi badizkit». Beste aldetik engainu bat dago.

PATXI (ASPINA): Eta gazta saltzailerak ere bai, engainagarria edo ezjakina.

«*Erronkari edo Idiazabal motako AGB bat egin nahi genuen, Pirinioetako arrazan oinarritua*»

Ez al da baliabiderik jartzen iruzurra salatzeko?

PATXI (ASPINA): Hori da.

MARTA (ARANA): Nire ustez, oso konplikatu da eta jendea oso nazkatuta dago 50 milioi zigiluekin, animalien ongizatearen etiketekin, hurbiltasun etiketekin. Eta gero supermerkatu batek bere gertutasun-zigilua ateratzen du, baina inork ez du egiaztatzen ardiak gertukoak diren ala ez.

PATXI (ASPINA): Eta hori gaztez ari zaretela, JDBei esker gehien bereizten den produktua baita. Nafarroako Aratxean izan genuen lehen liskarra AGBa eratzean izan zen. Guk Erronkari edo Idiazabal motako AGB bat egin nahi genuen, arraza Pirenaikoan oinarritua, hau da, hemengo haragitarako behi-aziendaren %60. Ez zegoen modurik.

Zergatik ez zenuten lortu?

PATXI (ASPINA): Izan ere, une hartako komertzialek esaten zizuten

agian gutxi zela, agian ez zirela hornitzera iristen...

Baina arraza autoktonoen logoa lortu duzue, ezta?

PATXI (ASPINA): Ministerioari presio egiten diogulako eta duela hiru edo lau urte “produktu %100 autoktonoa” logoa sortu zuelako liburuetan sartutako arraza autoktonoentzat. Liburu genealogikoan egon behar da logo hori eramateko. Nafarroan AGBn sartu ditugu, eta Nafarroako Aratxearen barruan Pirenaikoa den orok du zigilua.

Ez dugu harategietan ikusi.

PATXI (ASPINA): Izan ere, oraingoz gutxi funtzionatzen ari da, saltzaileei ez baitzaie interesatzen. Orain dela 30 urte AGB guk esan bezala egin izan balitz, ziur nago Nafarroan, orain, askoz ere Pirenaiko gehiago egongo liratekeela. Jende askok arraza izan zu-

en gero izenarekin saltzeko. Eta izenak oso ondo funtzionatu du. Saltoki handiek sistema hautsi dute.

Nola?

PATXI (ASPINA): Hasieran, harakinek IGPa erabili zuten saltoki handien aurrean bereizgarri gisa, baina gero denetarik saltzen hasi ziren. Bereizten ez bazara, supermerkatuak irabaziko zaitu beti. Orain hipermerkatu batera bazoaz, IGP edo Nafarroako Aratxea jartzen duen ilara ikusiko duzu linealean, baina gero hamar metro daude edozer gauzatatik, eta jendea, hor, preziora doa.

«Harategi batzuek ez dute arkumerik ere. Enkargatu egin behar duzu.»

LA REHIDRATACIÓN
NO ES SOLO REPONER LÍQUIDOS



La nueva solución de alto rendimiento para las diarreas

Pienso dietético complementario para terneros



ACHIEVE MORE TOGETHER

Bertako arrazen sustapena

Zer iritzi duzue zuen arrazen administrazioak egiten duen sustapenari buruz?

MAITE (ASLANA): Badakizue zenbat diru ematen dieten udalei bertako arraza guztien azoken bidez sustapena antolatzeke Nafarroa osoan? Urtean 30.000€ izan dira 15 urtean. Horrekin bertako abereen azoka guztiak antolatu behar ziren. Orain 40.000ra igo da.

PATXI (ASPINA): Horretan askoz gehiago lagun liteke.

MAITE (ASLANA): Azoka bakar batek 25.000-30.000 euroko arrerkontua du. Azoka horiek antolatzea izugarri gustatzen zaie udal guztiei.

PATXI (ASPINA): Abeltzainak, NPB-tik kobratuta eta laguntzetatik bizi bada ere, bere duintasuna du. Produktua saldu eta bereizten duen duintasuna. Pirenaikoa saltzen ari banaiz, zergatik nahas daiteke Irlandatik datorren haragiarekin edo ez dakit nondik datorren haragiarekin? Jendeak jakin dezala eta jendeak hautatuko duela erositako-an, ezta? Gaztarekin gauza bera: Latxa eta ez Latxa. Nik aukeratuko dut eta kito. Tresna hori behar dugu.

MARTA (ARANA): Eta arkumearen kasuan harategiak daude, adibidez, Irurtzundik goiti, arkumerik salgai ez dutenak.

MAITE (ASLANA): Ez, ez dago arkumerik, enkargatu egin behar duzu.

MARTA (ARANA): Egia da jaten zuten arkumea etxekoa zela, Latxetakoa, baina izugarri jaitsi da arkumearen kontsumoa, harakinak ere ez dira zoratuko astean arkume bat saltzeko.

PATXI (ASPINA): Gero badira niri beti deigarri egin zaizkidan gauzak. Zergatik gauza batzuetarako oso patriotikoak gara eta aberria eta legenda defendatzen ditugu, eta beste batzuetarako ez? Ez dut ulertzen. Sagardotegiak hemengoak dira. Sagardotegiko menua eskatu eta haragia Alemaniakoa.

«Benetako politika egiteak autonomien arabera Landa Garapenerako Plana sortzea ekarriko luke»

MAITE (ASLANA): Eta gaztak azal beltza badu...

Baliteke Europak bertako arrazak aitortzea, desagertzeko arriskuagatik.

PATXI (ASPINA): Portugalek, adibidez, bere arraza guztiak ditu aitortuta.

MAITE (ASLANA): Europak aukera hori zabaltzen zuen eta Portugalek aprobetxatu egin du. Espainian, galtzeko arriskuan katalogatuta egoteko, 7.000 ardi baino gutxiago izan behar dituzu. Gainerakook sustapen-prozesuan gaude. Eskatzen genuena zen sustatzen ari ziren arraza autoktono horien barruan katalogazio desberdina egotea. Gaur egun, desagertzeko arriskutik sustapenera pasatzea 200 kobratzetik Ora pasatzea da.

PATXI (ASPINA): Benetako politika egiteak Landa Garapenerako Plana autonomien arabera sortzea ekarriko luke; Landa Garapenerako Plana autonomia bakoitzak egiten du, arazoa da autonomiatik bertatik uste dugula ez dagoela epe luzerako planik eta ez dela irudimentsua edo ausarta. Zer nahi dut izatea nire komunitatea hemendik 10-20 urtera? Eta nahi dudanera iristeko neurri batzuk ezartzea. Gainerakoa “berdintasuna” denentzat horrela tira eginen dugu.

Bertako arrazak abeltzaintza estentsiboaren paradigma dira, ezta?

MARTA (ARANA): Izan ere, badi-rudi ez dagoela argi estentsiboaren definizioa ere.

Izan ere, hitz intentsiboa abeltzaintzaren hiztegi legetik desagertu egiten da. Estentsiboa, erdiestentsiboa eta ez-estentsiboa izango da.

MAITE (ASLANA): Hori intentsiboaren alde egitea da!

MARTA (ARANA): Noski.

PATXI (ASPINA): Are gehiago, ez dute deituko, ez eta “ustiapen” ere. Landetxe ez estentsiboak izango dira.

MARTA (ARANA): Beno, ustiaketa intentsiboa ez da existitzen, kontzeptu hori ez da existitzen.

Nafarroan ekoizpen estentsiboa antolatzeke ekimenak ere izan dira.

PATXI (ASPINA): Sektore osoa Nafarroan Abeltzaintza Estentsiboko Plan Estrategikoa egiten saiatu zen urtebetez baino gehiagoz. INTIAtik, elkarteak, kooperatibak, teknikariak, abeltzainak... ezerezean gelditu zen.

MAITE (ASLANA): Parlamentuko talde guztiak ados daude hori bultzatu behar zela.

MARTA (ARANA): Hor daude, 40 neurri zerrenda batean.

PATXI (ASPINA): Jendea nekatzen ari da. Eta hori merkaturatzearen gaiak funtzionatu egin duela. Behien kooperatiba, adibidez.





ARRAZA AUTOKTONOAK EKOLOGIKOAN

MAITE (ASLANA): Ekologikoan haragitarako behietan ikusten dugu hutsunerik handiena, ezta?

PATXI (ASPINA): Bai, batzuk ildo horretatik abiatzen ari dira.

MARTA (ARANA): Arraza autoktonoak dira ekologikoenak.

MAITE (ASLANA): Beno, jada ez da arraza autoktonoaz hitz egiten foro batzuetan, arraza egokituak esaten da.

MARTA (ARANA): Noski, orduan Lacaune arrazako batzuk izan ditzakezu modu intentsiboan, pentsu ekologiko ugari emanez eta... Hori ez da ekologikoa! Azkenean ekologikoa "berdina" izango da denentzat.

PATXI (ASPINA): Uste dut abeltzain ekologikoez argi dutela zer egiten duten.

MAITE (ASLANA): Zentzu handiagoa du abeltzainak araudiak egin duenak baino.

ELKARTEGINTZA

Zer dakar zuen elkarteetako kide izateak eta zenbat ordaindu behar da urtean?

MAITE (ASLANA): 1,60€ urteko ardi bakoitzeko. Horrela, hilean behin joaten gara, ardi bakoitzaren ekoizpena neurtzen dugu, buru berriak krotalatzten ditugu, errolda berriz egiten dugu eta ardi bakoitzeko informazio pila bat itzultzen diegu. Guk, gutxienez, 100 ardi eskatzen ditugu jezteko. Intseminazio artifiziala aparteko zerbitzua da.

MARTA (ARANA): Horri pentsua, aseguru bateratua eta beste gehitu behar zaio. Gure kuota 0,58€ da ardi bakoitzeko. Intseminazio Artifiziala doan da bazkideentzat.

PATXI (ASPINA): Gure kasuan, 10,00 € dira bi urtetik gorako behi bakoitzeko 70,00 €ko oinarriarekin. Gero tarte batzuk daude: 80 eta 160 behi artean 7,00€ kobratzen zaie behi bakoitzeko eta 160tik aurrera 5,00 €.



“

“ASLANAn gauden aurpegi beltzeko artaldeak hobetzen ari gara”

Elkarrizketa Iñaki Agirre Uriak

Iñaki Agirre Uriak 36 urte ditu. Olatzagutian bizi da, eta artzain izan nahi izan du betidanik. Mantentze-lanetako goi-mailako gradu bat egin zuen eta gero INTIAko (Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua) ikastaroa egin zuen lehen instalaziora sartu ahal izateko.

Sektore honetan sartzeko prestakuntzarik handiena etxean txikitatik aitona-amonekin bizitzea izan da, ardiak baitzituzten. Industria arloko lana ezagutu duen arren, dena utzi du bere pasioari ekiteko: ardi Latxa aurpegi beltzak.

Ardiekiko zaletasuna etxetik dator?

Bai, aitona eta aitonaren anaia, biak, bizitza osoan egon dira ardiekin. Gero, haiek erretiroa hartu zuten, eta nire aitaren, osabaren eta nire arteko artaldea kudeatzen hasi ginen. Horregatik duela 25 urte.

Zer unetan hasi zinen pentsatzen soilik horretan aritzeko aukeran?

Buruan txikitatik izan dut, baina fabrikako urteetan ikusi nuen ezin nuela ardiekin bateratu. Gehiegi zen. Horregatik erabaki nuen, gehiago gustatzen zitzaidalako.

«Nire zigor okerrena amak “ez zara ukuilura joango” esatea zen»

Diotenez, abeltzaintzan aritzea erabakitzeke, horretaz bizi nahi izatea baino zerbait gehiago behar da.

Niri hau gustatzen zait. Ez dit axola 12 edo 18 ordu egon behar den. Txikitan, gogoan dut nire zigor okerrena amak esaten zidanean “ez zara ukuilura joango”.

“Ez zara lagunekin aterako” esaten bazidan ez zitzaidan axola, baina ukuilua kentzen bazidan haserretu egiten nintzen.

Ustiatagia zure gain hartu ondoren, zenbat ardirekin hasi zinen? Aitonaren belaunaldikoetatik 150 geratu ziren. Gero handitu egin genuen, eta nik 200 ardi inguru batu nituen, orain dauden 400 ardiak arte.

Beti aurpegi beltza?

Bai, bizitza osoan aurpegi beltza.

Zergatik?

Uste dut Urbasako artaldeak [altuerako herri-larreak] beti izan direla aurpegi beltzak. Aurpegi gorrien artalderen bat zegoen, baina gutxi.

Baina instalatzen den jendeak, normalean, aurpegi gorriekin egiten du, ekoizpen handiagoa izaten dute, ezta?

Bai, genetikoki hobetuak daude.

«Aurpegi gorriak jarri behar izanez gero, agian utziko nuke»



·> Latxa aurpegi beltzaren zale amorratua

Eta zuk zergatik ez?

Niri gehiago gustatzen zaizkit hauek. Aurpegi gorriak jarri beharko banitu, ez dakit, agian utzi egingo nuke. Uste dut aurpegi beltza landatarragoa dela. Agian, zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta baserritartasun gutxiago du. Dena kate bat da.

Zenbat eta estentsiboagoa izan hobe den eredu baten alde egiten duzu ?

Bai. Erditzeak, adibidez, ukuluan ahalik eta denbora gutxien egoteko atzeratzen ditugu. Urtarrilaren erdira arte. San Joseko jeztekoekin landara irteten hasten gara.

Eta hutsik daudenak?

Hutsik dauden guztiak apirilaren erdialdera edo maiatzaren hasieran Urbasara igotzen hasten gara, eta azaroa edo abendua arte egoten dira. Uztailaren amaieran edo abuztuaren hasieran igotzen ditut jeztekoak.

Deskriba iezazkiguzu Latxa ardiaren ezaugarri nagusiak.
Latxak bere landatartasuna izan

du ezaugarri, landan egoteko erresistentea baita. Ondo jasaten ditu hotza eta ura. Artileak lagundu egiten dio eta hortik datorkio izena, artilearen laztasuna, ez baitu ezertarako balio, baina ardiari mendian egoten laguntzen dio. Ematen duen esnea oso ona da gazta-estraktu on batekin, hots, gantzaren eta proteina-aren baturarekin.

Zein ezaugarri morfologiko nabarmenduko zenuke?

Zertxobait txikiagoa da; gainera, gure aurpegi beltzak adarrak ditu, eta hori ez da ohikoa ardi-emetan. Aurpegia beste batzuk baino luzeagoa dute eta belarri txikiagoak.

«Gure aurpegi beltzak adarrak ditu»

Txikiagoak... elikadura gutxiago?

Bai, gorputz txikiagoa dute. Esne ekoizpen handiko ardiek baino gutxiago behar dute.

Batez besteko zer produktibitate mailaz ari gara?

Hobekuntza genetikoan ari garenok ASLANA Nafarroako Latxa Elkartearekin produktibitatea hobetzen ari gara, baina erabiltzen dituzun maneien eta elikaduraren arabera da. Aurpegi beltz hori 200 litro inguruko ardia da kanpaina bakoitzeko (120 egun).

Nori saltzen diozu esnea? Vasconavarra [gaztandegia].

Prezioarekin pozik?

Orain 1,30€ kobratzen ari gara litro bakoitzeko. Aziendaren elikadura ia %40 igo da azken urtean eta esnearen prezioa %12 inguru igo da.

Zure asmoa da esnea saltzen jarraitzea, eraldatu gabe?

Pentsatu beharra dugu. Bizitza Dagoen bezala, zenbakiak ez dira ateratzen.

Zenbat belar egiten duzu zuk?

Bazka ateratzeko, 20 hektarea inguru eta Urbasa eta herrilurretako lurreak. Orain 2-3 kilo bazka eta 800 gramo pentsu jaten ari dira.

Ateratzeko...

Egunean ardi bakoitzeko batez beste bi litro jezteko.

«Egunero bi litro jezten ditugu ardi bakoitzeko»

Mendian daudenean asko mugitzen dira?

Egun batzuetan, artzain-lanetan ari zarela, lekuak erakusten dizkiezu.

Gero, hortik ibiltzeko joera dute. Beste kontu bat da elikagairik ez izatea; orduan batzuk hona doaz, besteak harantz...

Banatzen dira?

Bai. Aurten, udan, izan den lehor-tearekin, ardiak 30-40ko taldeetan ibiltzen ziren. Berriz ere berdetzean elkartu egiten dira, baina, normalean, beti izaten dute lo egiteko leku finkoa.

Berez, arraza otzana da?

Ukuiluan lan egiteko ardi ona da, nahiko otzana, baina gero, kalera ateratzen direnean, urduritu egiten dira. Aztoratu egiten dira. Pentsaera aldatzen zaie.

INSTALAZIOAK

laz nabea amaitu genuen. Administrazio-baimenen zurrunbiloa izan da. Sakanan gaude, bi mendilerroren arteko bailara estu batean, Urbasa eta Aralar, autobia eta trenbidea bere gain hartzen dituen. Nabea ibaiaren eta herriaren artean dago, baina bi harrobiek zaintzen dute alde batean eta zementu-fabrikak bestean. Horrek asko baldintzatu ditu baimenak. 2019an eskatu nuen instalazioa, eta 2022an amaitu nuen obra. Erokeria. Nabeak 940 metro karratu ditu. Barruan 360 ardi izateko pentsatuta dago. Kontuan hartuta hutsak beti kanpoan daudela, ez dago arazorik 400 ardirentzako lekua izateko.

ARDI LATXA, PAISAIA EGILE

Ardi hauek dira gure ingurua mantentzen dutenak. Hau horrelakoa da ardiak beti hemen egon direlako. Gu bizi garen inguruan industria asko dago jada eta artzain gutxi geratzen gara. Niretzat lorpen handia da honekin jarraitzea.

ASLANA HOBETZEKO PALANKA

